

KONFINAMENDUA

BERTSOAK, E KATEGORIA
IZENGOITIA: XORGIN

Doinua: Badira hiru aste (Mikel Urgangarin)

-1-

Martxoko aste ilun batean
itxi zituzten eskolak
etxe guztiak bihurtu ziren
herritarrentzat kaiolak
edozer erosteko herrian
alde guztietan kolak
bukatu ziren lagun arteko
poteo eta alkoholak.

-2-

Etxeko terrazan ordu askoz
geunden beti elkartuta
netflixeko telesail zein filmak
genituen bukatuta
eguneroko kirol saioak
uzten zidan lehertuta
8etan eskerrak emanaz
denon txaloak batuta.

-3-

Lagun denekin bideo deiak
ezin falta arratsero
ostegunero pintxo potean
ematen gendun sei ero
ogia erosteko geratuz
elkartzen ginen goizero
askoz indartsugoak garela
sentitzen dut harrezkero.

-4-

Kuarentenan izan genituen
eskolarako klaseak
gu baino lan gehiago egin behar
zuen gure irakasleak
birtualki ziren klase askotan
soilik ginen entzuleak
beste askok bihurtu gintuzten
haien klaseen miresleak.

-5-

Maiatzean hasi zen gurean
denontzat deseskalada
4 fase azaltzeko orduan
buruan zer entsalada
8etatik 11k arte
zen gure arnas bolada
konturatzerako sortu gendun
terrazetako asanblada.

-6-

Neurri guztiak bete ostean
iritsia zen udara
denok joan ginen etenik gabe
pistina zein hondartzara
turismoarengatik covidak
geratuz alboetara
horrekin lortu dute itzultzea
berriro balkoietara.